



MASTER AMAIERAKO LANA MAL

1.- AURRETIKO GOGOETAK

1.1.- Master Amaierako Lanaren garrantzia eta kredituak

Master Amaierako Lana (MAL) ikasleen formakuntza-prozesuaren bukaera da. Masterraren 60 kredituetatik 12 dagozkie lan horri eta, ondorioz, proba garrantzitsua da, bai ikasleek barneratutako eduki teorikoak, bai metodologia- eta ikerketa-eremuan izandako prozesu pertsonala balioesteko.

1.2.- Deialdiak

Ikasturtean zehar horretarako irekiko diren bi deialditan izango dute ikasleek MAL-a aurkezteko aukera: ekainean (lehen deialdia) eta irailean (bigarren deialdia). Ikasle bakoitzak 3 urtez matrikulatzeko aukera izango du, masterreko lehen matrikula formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

1.3.- Tutorizazioa eta azalpen publikoak

MAL guztiak gutxienez Masterreko irakasle batek tutorizatuko ditu, lehen hiruhilekoan Batzorde Akademikoak izendatuko duen batek, hain zuzen ere. Gabonetako oporren aurretik tutorea eta ikaslea gutxienez behin harremanetan jartzea espero da, hauek zehazten hasteko: ikergaia, helburuak eta hipotesiak, metodologia eta oinarritzko bibliografia bat.

Hasierako harreman horiek ikerketa-proiektuaren lehen zirriborroa egiteko oinarria izango dira. Lehen lauhilekoa amaitu baino lehen zirriborro horren aurkezpen labur bat egingo da ikasgelan, MAL-ean zer aurrerapen eta zer zailtasun eta zalantza izan den azaltzeko. Ariketa hori aukera bat izan daiteke lantzen ari garen proiektua agertzeko eta hari buruz eztabaidatzeko; horrez gain, zer zalantza eta arazo aurkitu dituzuen planteatzeko eremua ere izan daiteke.

Azkenik, 2. hiruhilekoaren amaieran bigarren saio publiko bat egingo da ordura arte egindako aurrerapenen berri emateko.

1.4.- Azken entrega eta defentsa

MAL-a **EKAINEAN** entregatzekotan eta defendatzekotan, ikasleak maiatzaren hasieran entregatu beharko dio tutoreari lanaren zirriborroa, bertsio ia behin betikotzat jotzeko moduan landuta egon beharko duena. Horretarako, beharrezkoa da behar beste tutoretza egin eta azaldutako arazo metodologiko guztiak konpondu izana, bai eta landa-lana eginda edukitzea ere.

Ekainaren lehen hamabostaldian MAL-a bukatutzat joko da. Horretarako, behin betiko bertsioa tutoreari entregatuko zaio, azken balorazioa egin dezan edo aldaketaren bat proposa dezan, behin betiko Batzorde Akademikoari entregatu aurretik.

Ekainaren 15ean tutoreak MAL-aren balorazio-txostena bidaliko du, lanaren alderdi nagusiak labur iruzkinduko dituena: helburuak, metodologia, ideien argitasuna, hizkuntza akademikoa, erabilitako bibliografia. Halaber, hauek ere balioetsiko ditu: ikasleak zer prozesu pertsonal izan duen eta MAL-arekiko zer ardura-maila izan duen.

Lehen deialdi horretara aurkeztutako Master Amaierako Lanen defentsa ekainaren amaieran egingo da.

MAL-a **IRAILEAN** entregatzea eta defendatzea erabakitzen baldin bada, hil horretako lehen hamabostaldian bukatu beharko da. Denbora-tarte horretan entregatuko zaio tutoreari behin betiko bertsioa, azken balorazioa egin dezan edo aldaketaren bat proposa dezan, behin betiko Batzorde Akademikoari entregatu aurretik. Dena den, kontuan hartu behar da abuztua dela EHUko irakasleen eta ikertzaileen opor-hilabetea, beraz, lan-egutegia tutorearekin aurretik adostea gomendatzen da.

Tutoreak, irailaren 15ean, tutorizatutako MAL-aren balorazio-txostena bidaliko du, lanaren alderdi nagusiak labur iruzkinduko dituena: helburuak, metodologia, ideien argitasuna, hizkuntza akademikoa, erabilitako bibliografia. Halaber, hauek ere balioetsiko ditu: ikasleak zer prozesu pertsonal izan duen eta MAL-arekiko zer ardura-maila izan duen.

Bigarren deialdi horretan aurkeztutako Master Amaierako Lanen defentsa irailaren amaieran egingo da.

AZAROA	➤ Ikasleek bete beharreko MAL-aren fitxa entregatzea.
ABENDUA	➤ Tutoreen esleipena eta lehen harremanak, hauek mugatzeko: lanaren gaia, helburuak eta egitura.

OTSAILA	➤ Egindako lehen aurrerapenen 1. aurkezpen publikoa.
MAIATZA	➤ MAL-aren garapenari buruzko 2. aurkezpen publikoa. ➤ Tutoreari zirriborro ia behin betikoa entregatzea, MAL-a ekainean aurkeztekotan (1. deialdia).
EKAINA	MAL-a lehen deialdian aurkeztekotan: ➤ Ekainaren hasieran tutoreari betiko lana entregatzea, ontzat eman dezan. ➤ Ekainaren 15ean Batzorde Akademikoari behin betiko Master Amaierako Lana entregatzea. ➤ Ekainaren amaieran MAL-aren defentsa epaimahai baten aurrean.
IRAILA	MAL-a bigarren deialdian entregatekotan: ➤ Irailaren hasieran tutoreari behin betiko lana entregatzea, ontzat eman dezan ➤ Irailaren 15ean, Batzorde Akademikoari behin betiko Master Amaierako Lana entregatzea. ➤ Irailaren amaieran, MAL-aren defentsa epaimahai baten aurrean.

2.- MASTER AMAIERAKO LANAREN ALDERDI NAGUSIAK

2.1. MAL-ari buruzko gogoeta orokorrak eta haren ezaugarriak

Oro har, Master Amaierako Lanak **ezaugarri** hauek bete behar ditu:

- ✓ Ahal dela, MAL-ak enpirikoki heldu behar dio proposatutako ikergaiari (landa-lanaren bidez), nahiz ez den baztertzen ikerketak oinarri teorikoa baino ez izatea (bibliografikoa eta /edo dokumentala).
- ✓ Aurretik adierazitakoaren ildoan, egokiena MAL-ak bi alderdi edukitzea da, enpirikoa eta interpretaziozkoa. Proposatutako helburuei erantzuteko, lanak bi-biak eduki behar ditu, landa-lan egokiko oinarria (elkarrizketa sakonak, bigarren mailako datu-baseen analisiak, eztabaida-taldeak, inkestak, ikastaroak eta abar) eta, halaber, lortutako emaitzak egoki interpretatu ahal izateko behar besteko garapen teorikoa.
- ✓ MAL-a eratzen duen azken dokumentuak ez ditu soilik emaitza deskriptiboak jaso behar, interpretaziozkoek ere azaldu behar dute bertan, ikerketa-esparruan egindako ekarpen teoriko nagusien testuinguruan jarrita eta landa-lanean lortutako datuak edo materialak aintzat hartuta.

- ✓ MAL-ean gogoeta kritiko bat ere egin behar da, lanaren mugei eta alderdi sendoenei buruz, metodologikoki eta kontzeptualki.

2.2. Landa-lana

Landa-lanak, **gutxienez**, lan-karga hau eduki behar du:

Metodologia kuantitatiboko lanak:

- Bigarren mailako datuen iturriak lantzekotan, gutxienez **datu-base** bat aztertu behar da (inkesta bat edo estatistika-institutu baten erregistroa).
- Lehen mailako datuak sortu nahi baldin badira, gutxienez **40 inkesta** egitea eskatuko da. Jakina da inkesta-kopuru hori ez dela nahikoa emaitzen benetako estrapolazio bat egin ahal izateko, baina helburua datuen tratamenduari lotutako "jarduera" bat egitea denez, dokumentuan ohartarazpen hori egin ondoren, benetako lagin baterako nahikoa inkesta egin balira bezala tratatuko dira datuak.

Metodologia kualitatiboko lanak:

- Gutxienez **2 eztabaida-talde/-tailer** edo **5 elkarrizketa sakon** egingo dira. Bi tekniken konbinazioa ere erabili ahal izango da (talde bat eta hiru elkarrizketa, adibidez).
- Corpus bat eratuko da, hainbat motatakoak izan daitezkeen materialekin (literatura-, zinematografia-, argazki-iturriak, dokumentu biografikoak...), ikerketak dauzkan berezitasunen arabera eratu (landuko diren materialen hautaketa arrazoitua egitea) eta aztertuko dena.
- Partaidetzazko behaketa. Tutorearekin adostuko dira metodologia kualitatiboa garatzeko irizpideak, haren berezitasunak direla medio; izan ere, izaera etnografiko nabarmena dauka eta hainbat teknika erabiltzeko aukera ematen du, aztertutako eremuaren berezitasunaren arabera.

Metodologia kualitatiboko eta kuantitatiboko lanak:

- Lanaren azken karga proposatutako adibideekin parekagarria izateko moduan konbinatuko dituzte ikasleek aipatu berri ditugun teknikak.

Tutoreak gainbegiratu eta ontzat eman beharko ditu, bai MAL-aren alderdi eta ezaugarri orokorrak, bai landa-lanari ekiteko metodologiaren aukeraketa.

2.3. Alderdi formalak

- **LUZERA:** MAL-ak, gutxi gorabehera, 25.000 eta 35.000 hitz bitarteko luzera izango du, bibliografia eta eranskinak zenbatu gabe. Garrantzitsua da adierazle hori kontuan hartzea, eskatutako gehienezko luzera EZ GAINDITZEKO (azken notan penalizazioa ekar dezake horrek).
- **AURKEZPENA:** MAL-ak aurrerago zehaztuko diren atalak eduki behar ditu eta haren orrialdeek zenbakituta egon behar dute. Epigrafeek testuaren egiturarekin bat egin behar dute eta korrelatiboki zenbakitu behar dira.
- **TAULAK ETA GRAFIKOAK:** korrelatiboki zenbakitu behar dira. Izenburu bat jarri behar zaie, hauek zehaztuko dituen: zer aldagairi buruzko informazioa ematen da, informazioaren testuinguru geografikoa, erreferentzia-aldia (urtea/hila/aldia) eta, behar balitz, neurri-unitateak (milakoak, ehunekoak...). Halaber, datuak zer iturritatik jaso diren ere adierazi behar da.
- **BIBLIOGRAFIA:** erreferentziak era egokian aipatu behar dira, akademikoki onartuta dagoen edozein sistema oinarri hartuta (APA, UNE, Harvard eta abar).
- **AIPU BIBLIOGRAFIKOEN SISTEMA:** testu osoan erabili behar da. Kontuan izan PLAGIOAK lana guztiz baliogabetzen duela: *“guztiz debekatuta dago edozein testuren pasarteak literalki jartzea, izan liburuetakoak, zientzia-aldizkarietako artikuluetakoak, tesietakoak, web orrietakoak eta abarretakoak, aurretik testuan egoki aipatu gabe, zer iturritatik jaso den identifikatu ahal izateko moduan. Hala egiten ez baldin bada, lanari zero kalifikazioa jarriko zaio”.*
- **BALORAZIO-IRIZPIDE OROKORRAK:**
 - ✓ Ikerketa-galderen, helburuen eta hipotesien planteamendu ulergarria eta egokia.
 - ✓ Ikerketaren esparru teorikoaren garapen egokia.
 - ✓ Esparru teorikoaren eta planteamendu metodologikoaren arteko koherentzia, bai eta azken horren egokitzapena ere, planteatutako helburuetara.
 - ✓ Lortutako emaitzak aztertzeke eta interpretatzeko gaitasuna.
 - ✓ Kapituluak eta, baleude, eranskinak era logikoan ordenatzea eta sekuentziatzea.
 - ✓ Laneko osagaiak egoki aukeratzea eta aurkeztea, hala nola eskemak, taulak, irudiak, argazkiak eta beste edozein material.
 - ✓ Hiztegi doia aukeratzea eta testu osoan era koherentean erabiltzea.
 - ✓ Argudioen aberastasuna.
 - ✓ Zuzentasun gramatikala/ortografikoa.

- ✓ Sintesi-gaitasuna.
- ✓ Lan bat idatziz aurkezteko arau akademikoetara egokitzea.

Master Amaierako Lanaren egitura

MAL-a eratzen duen txostenak osagai hauek eduki behar ditu (ordena honetan, gutxi gorabehera):

1.- Azala

Proiektuaren izenburua, egilea, tutorea eta data.

2.- Aurkibidea

Orrialde-zenbaketa jaso behar du. Egitura ikusteko eta atal bakoitzera erraz iristeko aukera ematen du.

3.- Sarrera / Aurkezpena/Justifikazioa

Atal horretan aurkezten eta justifikatzen da ikergaia, hauek azalduta: zer garrantzi du aukeratutako gaia ikertzeak, zer behar dago hartarako eta zer lortzea eta zer ekarpen egitea espero da. Gaiarekiko interes pertsonalen bat ere jaso dezake; hau da, zer arrazoik daraman norbera gaiari buruz ikertzera.

4.- Ikerketaren esparru teorikoa

Aurretik egindako ikerketen errebaso teorikoa, kontzeptuala eta metodologikoa. Garrantzitsua da ikertuko den gaiaren funtsezko kontzeptuak definitzea, gaiari heltzeko aurretik zer ikuspuntu teoriko, metodologiko eta enpiriko nagusi erabili diren azaltzea eta horietako baten aldeko apustua justifikatzea (edo aurretik gaiari heldu ez izana edo urri eta desegoki egin izana azaltzea). Horrez gain, ikerketa kokatuko den esparru teorikoaren oinarrizko ildoak ere aurkeztu behar dira.

5.- Helburuak / Hipotesiak / Ikerketa-galderak

MAL-aren helburuak. Atal hau datza argi azaltzean zer lortu nahi den ikerketarekin, zer galderari erantzun nahi zaion eta/edo abiapuntutzat zer hipotesi hartu den.

6.- Diseinu metodologikoa

- Informazioa jasotzeko eta/edo ekoizteko zer metodo eta teknika erabili diren adierazi behar da, zergatik hautatu diren justifikatuta eta ikerketaren helburuekin lotuta.
- Hautatutako laginak justifikatu eta deskribatu behar dira (hala laginen diseinu kuantitiboari nola metodo kualitatiboetako pertsonen hautaketari dagokienez).
- Informazioa jasotzeko eta aztertzekeo tresnak zehaztu behar dira (galdetegiak edo gidoiak egiteko irizpideak, edukiak aztertzekeo irizpideak...).

Galdetegiak edo gidoiak eranskinetan jarriko dira.

7.- Aurkezpena eta emaitzen interpretazioa

Emaitzen deskribapenak eta analisiak ordenatua eta aurretik formulatutako helburuekin, galderekin eta hipotesiekin koherentea izan behar du.

8.- Ondorioak

Zer ekarpen egitea lortu da ikerketa-lanaren bidez? Kontua ez da emaitzen laburpen bat egitea, baizik eta garrantzitsuenak eta esanguratsuenak nabarmentzea, eta aurretiko egitura teorikoarekin eta/edo gaiari buruzko ikerketekin alderatzea.

9.- Balorazio kritikoa

Ikerketa-prozesuari buruzko hausnarketa kritikoa: nola aldatu dira hasierako helburuak, planak, metodologiak... landa-lana garatu ahala, eta zergatik. Interesgarria da hauek ere adieraztea: lanaren mugak, sendotasunak eta etorkizunerako aurkitu ahal izan diren ikerketa-ildo nagusiak.

10.- Bibliografia

11.- Eranskinak (baleude)

Gidoiak, galdetegiak, laginen deskribapenak, argazkiak...

Ikerketaren osagai guztiak tutorearekin adostu behar dira, eta hark onetsi beharko du azken txostena ebaluatuko duen epaimahaiari aurkeztu baino lehen.

2.5. Defentsa

Behin tutoreak lanaren edukia ontzat eman duenean, MAL-a epaimahai ebaluatzaile baten aurrean publikoki aurkeztuko da, Masterraren egutegi akademikoan zehaztutako datetan. Bi deialdi daude lana aurkeztu ahal izateko, ekainekoa eta/edo irailekoa.

2.6. Ebaluazioa

Ondorengo koadroan MAL-a ebaluatzeko blokeak, atalak eta irizpideak adierazten dira.

I.- LANAREN EDUKIA % 65	
ATALA	ADIERAZLEAK / IRIZPIDEAK
1.- HURBILKETA TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA (%20)	
PLANTEAMENDUA	<ul style="list-style-type: none">• Ikergaia mugatzea.• Ikergaiaren interesa/justifikazioa.• Ikerketa-galderen, helburuen eta hipotesien planteamendu ulergarria eta egokia.• Garrantzi soziala eta soziologikoa.
GARAPEN TEORIKOA	<ul style="list-style-type: none">• Ikergaiaren egoerara hurbilpen kritikoa.• Ikuspegi jakin baten hautaketa justifikatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Beste proposamen teoriko batzuekin hartu-eman kritikoa. • Iturri bibliografikoen aberastasuna eta aniztasuna. • Kontzeptu gakoak, definitzioak... egoki garatzea.
2.- GARAPEN METODOLOGIKOA ETA ANALISIA (%30)	
GARAPEN METODOLOGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Planteamendu teoriko-kontzeptuala ikerketaren diseinura egokitzea. ➤ Hauek xehetasunez deskribatzea: ikuspegi metodologikoa, teknika eta egingo den analisi-mota.
GARAPEN ENPIRIKOA ETA ANALISIA	<ul style="list-style-type: none"> • Landa-lanaren garapena eta ikerketa-teknikak praktikan jartzea (harremanetan jartzeko prozesua, laginketa eta abar). • Datuak jasotzeko/ekoizteko erabilitako tresnak balioestea (galdetegia, gidoia eta abar). • Lortutako emaitzak egoki interpretatzea.
3.- ONDORIOAK ETA LANAREN ORIGINALTASUNA (%15)	
IKERKETA-PROZESUAREN BALORAZIOA, HURA OSORIK HARTUTA	<ul style="list-style-type: none"> • Planteatutako helburuetara egokitzea. • Etorkizunerako ikerketa-ildo posibleak. • Ikerketa-prozesuari buruzko hausnarketa kritikoa. • Proposamenaren originaltasun teoriko-metodologikoa.

II.- ALDERDI FORMALAK %20	
ATALA	ADIERAZLEAK / IRIZPIDEAK
EGITURA ETA AURKEZPENA	<ul style="list-style-type: none"> • Kapituluak eta, baleude, eranskinak era logikoan ordenatzea eta sekuentziaztea. • Lanaren osagaiak egoki aukeratzea eta aurkeztea, hala nola eskemak, taulak, irudiak, argazkiak eta beste edozein material.
TESTUAREN ULERGARRITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegi doia hautatzea eta era koherentean erabiltzea. • Argudioen aberastasuna. • Taulak, grafikoak, mapak, koadroak, eskemak eta gainerako elementu grafiko eta bisualak zuzen erabiltzea eta testuan egoki integratzea. • Zuzentasun gramatikala/ortografikoa.
BIBLIOGRAFIA	<ul style="list-style-type: none"> • Aipatutako bibliografiaren eta lanean erabilitakoaren arteko lotura koherentea. ➤ Testu osoan aipu bibliografikoen sistema bat erabiltzea eta estilo horretara egokitzea (APA eta abar).

III.- AURKEZPENA/DEFENTSA %15	
ATALA	ADIERAZLEAK /IRIZPIDEAK
DENBORAREN KUDEAKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpen-denbora egoki planifikatzea eta antolatzea. • Aurkezpeneko edukia nahikoa da proposamenaren oinarritzko osagaiak ulertzeko.
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpenean erabilitako baliabideen egokitzapena (bai teknikoena, bai sormenezkoena).
KOMUNIKAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpenaren argitasuna. • Ulermen egokia eta epaimahaiak proposatutako galderei erantzun zehatzak. ➤ Jarrera kritiko-konstruktiboa epaimahaiko kideekin elkarrizketan.